

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko maiatzaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Gustavo de Maeztu museoak Lizarraldeko sei margolariren lanak bildu ditu.

Pilar Irigoien • «Garrantzitsuena gauzak egiteko gogoia izatea da».

Aingeru Irigarai: alde askotako gizona



Aingeruk Irlandara egindako bidaia. Zutik ageri da Aingeru. Behetik hasita, hirugarren ilaran bigarrena da.

• ARTXIBOKOA

Aingeru Irigarai Irigarai nafarrak (1899-1983) euskalgintzan zeresan handia eman zuen. Sendakina, kulturaz jantzitako gizona, Euskal Herriaren aldeko maitasunak bultzaturik hainbat gai jorratu zituen zortzi hamarkadatan. Horren lekuko dira hainbat erakundetan egindako lanak: Iruñeko Euskeraren Adiskideak Elkartean, Euskaltzaindian, Nafarroako Diputazioan Euskararen Aldeko Sailean eta Eusko Ikaskuntzan, hain zuzen. Gerra aurreko eta ondorengo euskaltzaleen lokarri, euskal munduan eragile eta giltzarri, eta zenbait arlotan aitzindari izan zen. Oraindik ere, hark idatzitakoa ikasbide eta jakinbide dira. Euskaltzaindiak omenduko du ekainaren 24an, eta Eusko Jaurlaritzak Bidegileak Sailean haren bizitza eta ekarpenak argitaratuko ditu uda ondotik.

Lizarra •

Sei begirada aldi berean

Gustavo de Maeztu museoak Lizarraldeko sei margolariren lanak bildu ditu

Denboraren joan-etorriaren inguruan sei margolarik egin duten gogoeta ikus daiteke egunotan Gustavo de Maeztu museoan.

Erakusketa maiatzaren 16a arte izanen da zabalik.

FLORENCIO ALONSO, ALICIA Irigolien, Marijose Rekalde, Jesus Sanchez, Andres Santamaria eta Juan Maria Sukilbide dira denboraren joan-etorriaren inguruan lan egin duten artistak. Deitura bakoitzaren atzean artista bat dago. Lehenak margo abstraktuak pintatzen ditu, «ibilbide isurkariak», erran du berak; bigarrenak, amesten dituen paisaiak edo bideak; hirugarrenak erretratuak pintatzen ditu, bai eta bere burua ere; laugarrena, musikotasuna margo bihurtzen saiatu da berriro ere, eta ahaleginaren ostean doinuak lortu ditu; bortzgarrenaren margoek hitz egiten dute, galdera anitz egiten dituzte; seiagarrenak askatasunarekin jolasten du, egileak dena aukeratzen baitu: koloreak, formak, barrunbeak, neurriak, euskarriak eta erreinatu nahi duen guztia. Hamabi betsein, hamabi begi, sei begirada, sei gogoeta. Haatik, hiru ezaugarri batzen di-



Museoak sei artistaren gogoeten erakusle diren lanak bildu ditu.

• MIKEL SAIZ

tuzte: adinak, jatorriak eta adiskidetasunak. Izan ere, denek 30 urte inguru dituzte, seirak Lizarraldekoak bertakoak dira, eta lagun minak gainera. Orain berriro ere elkartu egin dira, eta elkarrekin gogoeta egin dute, eta bere artelanak ere elkartu egin dituzte. Zer da denbora? Zer adierazi nahi du denboraren joan-etorriak? Nola eragiten dio denborak norberari? Eta norberaren lanari? Nola baldintzatzen gaitu denborak? Zer jarrera dugu haren aurrean? Galdera horiei guztiei erantzuna ematen saiatu dira sei artistok, eta emaitza Gustavo de Maeztu museoan ikus daiteke maiatzaren 16a arte.

Camino Paredes museoko zuzendariaren hitzetan lan erraza izan da sei artistak biltzea. «Izan ere, denak gertu bizi dira, eta lan egiteko gogo izugarria daukate beti». Erakusketa museoaren lan dinamikaren barruan sartzen da, haren xede nagusia Lizarraldeko artistei ere leku bat egitea izan baita. «Aukera eman behar zaie bertako artegileei, eta are gehiago egiten duten lana kalitatezkoa denean, eta kasu honetan, dudarik gabe, hala da», esan du Paredesek. Museoako zuzendariak erran duena egia da, horrela frogatzen baitute sei gazteek beren lanean lortu dituzten hainbat sarik. Esaterako, Florencio

Alonsok Florentziako Nazioarteko Biurteko Arte Garaideko Lehiaketan aukeratu dute aurretik. Halaber, Alicia Irigolien Iruñeko Biurteko Pintura deialdian saritu zuten; Mari Jose Rekaldek, berriz, margo zein eskultura sariak jaso ditu, eta Jesus Sanchezek Gazteentzako Pintura Sari Nazionala irabazi du. Andres Santamaria ere ez da atzera gelditu, Nafarroan hainbat aipamen izan dituelako, eta Juan Maria Sukilbidek laguntza eta beka anitz jaso ditu. Ugariak dira, halaber, artistok bakarka zein taldeka han eta hemen egindako erakusketak.

→ Kristina Berasain

Iruñerria

‘Tirriki-Tarraka’ irratsaioa Euskalerrria Irratian

ARTURO KANPION IKAKO euskaltegiak *Tirriki-Tarraka* programa uhineratuko du Euskalerrria Irratiaren laguntzarekin. Euskara ikasten ari direnentzako hamaika-hamabi minutuko saioek osatuko dute irratsaioa. Saio bakoitzak hiru zati izanen ditu. Lehenengo puska euskaldun berri batek euskara ikasteko bizi dituen gorabeherak kontatzen dituen irratinobela bat izanen da. Bigarren zatian lehenengo parteko kontakizunean akatsak agertuko dira, ondoren zuzentzeko. Era berean, erabilitako hizkerak nola aberastu eta landu azalduko da. Azkeneko parteari, berriz, *Nahas-mahas* izena jarri diote. Denetarik jorratuko da atal horretan: entzuleak musika, ipuinak edo biografiak entzuteko aukera izanen du, besteak beste.

Tirriki-Tarraka saioa etzidamu hasiko da, Euskalerrria Irratian, eta hiru astez emitituko da, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko lauretako berrien ondotik. Gidoia IKAKO Nekane Otamendi irakasleak egin du, eta saioak euskaltegiko irakasleek egin dituzte Euskalerrria Irratiaren azpiegitura eta laguntza aprobetxatuz.

→ Irene Arrizurieta

denbora pasa

XAMAR



BInformazioa urria zen garai haietan atxeman nuen *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*. Aurkikuntza gaitza enetako; baina are harrigarriagoa egilearen, Aingeru Irigarai, ezontzea izan zen. Nafarroaren unerik latzenetako bat bizitzea egokitu zitzaion, alta lan ezinago ederra burutu zuen.

Hizkuntzaren bizia zuen kezka nagusi, erran nahi baita Herriarena. Eta Herria ongi ezontzeagatik, sensibilitate berezia zuen iragana, oraina eta etorkizuna lotzeko. Begi bixtako mintzoaren desagertpenak iraganaren ikertzeraren eraman zuen, gero-rako bideak asmatu beharrez.

Denbora galdua

Xakinduria horrek, konparazio batera, Euskal Herria izenaren defentsara bultzatu zuen. Bai, aitor dezadan banaela aintzina urtetan, zeren ixtorio hau entendaiezina egiten baitzaie orainko irakurle anitzei. Gaur egun Euskadi elearen aipatzea kasik debekatuta dagoelarik (zenbaitetan «aparatua» agindua da), denboretan Euskal Herria zen egoera berean egon zena. Are gehiago azken honen ibiltzeak, kasurik hoberenean, «epel» baten pare ezartzen zuen erabiltzailea.

Aingeruk bazuen kriterioa, inguruak zemahi erranik ere, eta errez goartzen zen Euskadi hitzaren akatsaz Euskal Herriarenaren ondoan jende

arruntarendako: berria, errotu gabekoa, zatiketa handiagotzen ahal zuena... beraz aise erranahiaz hustutzeko. Deplauki asmatu zuen, normahik dabil Euskadi elea, baina arront geografía desberdinetarako.

Hau bezalako ixtoriorik hameka badira, baina ez dezala inork espero norbaitek onartuko duela egin hutsa, edo funtsgabe xautu indarra. Guzia aintzina (omen) dae behar den gisan... biba gu eta gutarrak! Halere azken hogoeita bortz urte hauen autokritika egin gabe dago alor guztietan, eta noiz-pait egin beharko da. Aingeruk, adibide gisa, merezi zuen holakorik.



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Software

Medikutik nator. Txapuza ikaragarria egin du nirekin.

Disketeekin gora eta beheara zela hartu nau eta segituan jertseia eta kamiseta kentzeko agindua eman dit. Gero nik ezagutzen ez nuen eta nire sorbaladan dagoen interruptore bati eman dio. Klik. - «Lasai»- esan dit - «ikusten al nauzu?».

Baiez erantzun diot. - «Zenbat dira bat gehi bat? »- segitu du. Nik bi direla esan behar nionean ahotsik gabe gelditu naiz. Ezin mugituz. Begiak eta ahoa zabal zabalik. - «Kolgotu da»- esan du Mediku Jaunak eta berri biak kendu dizkit eta - «Bateriak ongi daudela ematen du», esaten zuen mementu berean konortea galdu dut. Handik minutu batera piztuta nengoen berriz ere eta ni konturatu gabe medikuari - «Gizaki hau ez da behar den moduan itzali, sakatu interruptorea hurrengorako», esan diot. - «Hau normala da»- erantzun dit berak - ez larritu. Artxiboen kontua da.

Baten batek besteekin talka egiten duela. Hortaz nire artxiboak, ezkutuenak ere, banan banan ateratzen ari da. Mahaiaren gainean jartzen zituen ordena alfabetikoan eta beraien gainean makurturik hartzaz seinatzen zituen beraien izenak xuxurlatuz. Bukatzerako Autoestimaren artxiboa atera du eta berriz itzali nau eta berriz piztu. Oso arraroa piztu naiz. Guztiz arraroa. Ez nuen deus ere sentitzen, ez nuen inongo iritzirik ere. Ni naizen guztia mahaiaren gainean zegoen, eta, egia esan, ez nuen asko ematen hurrela mahai baten gainean sakabanatuta, bainan azken finean ni nintzen eta nire artxibo horien guztien gainean alkohol botila erori denean hotza sentitu dut. «Ostia!», esan du Mediku Jaunak, «dena hondatu da!». Gero eskura zuen software bakarrekin bete nau: 17 urteko mutil baten artxiboekin. Konturatu naiz orduan deprimituta nengoela, ez nuela benetako adiskiderik munduan eta klaseko neska politenak ez didala inongo kasurik egiten. Nire diarioan olerki oso triste bat idazteko gogo ikaragarria nuen. Amodioaz eta iraultzaz hitzegingo zuen horietako bat. - «Mmmmm, xuxurlatu du» Mediku Jaunak, eta gero Erizaina bera deitu du nire kasua ikus zezan. - «Begira ze bitxia, negarrez ari da».

Igantzi

Hodeiertz
abesbatzaren
kontzertua,
bihar

TOLOSAKO HODEIERTZ abesbatzak kontzertua emanen du bihar, larunbata, arratsaldeko 8etan, Igantziko elizan, herriko abesbatzak antolatuta. Abesbatza honek sona eta ibilbide aski azpimarragarriak ditu, kontzertu ugari eman baititu Europa osoan, eta grabazioak ere eginak baititu. 1983an sortu zen Tolosan Hodeiertz abesbatza, 14 eta 17 urte arteko 40ren bat gaztetxorekin. Hasieratik goi mailako abesbatza izateko helburuarekin sortu zen, eta horretarako Gipuzkoako musikari eta abesbatza zuzendari ospetsuenekin elkarlanean jardun zuten. 1985ean Enrique Azurza tolosarrak hartu zuen abesbatzaren gidaritza, eta ordudunik bera da zuzendaria. Kantu irakaslea da, eta bera ari da Igantziko abesbatzako zuzendariaren prestaketa lanetan, bertzeak bertze. Espainian eta Europa osoan, makina bat lehiaketa irabazi ditu taldeak: besteak beste, Ejea de los Caballeros, Aviles eta Torrevejan, Gorizia (Italia), Neerpelt (Belgika), Bulgariako Varnan eta Austriako Spittalengo lehiaketan.

→ Jon Abril.

Sakana •

Beleixe euskarazko irratia martxan da

Dialeko 107.0an entzun daiteke, 12:00etatik 14:00ara

Bizpahiru urtetako lanaren ondoren, dialeko 107.0an entzun dezakegu egunero Beleixe euskarazko irratia jaio berria. Bierrik elkarteak sustatu du, eta sortzeko bidean eskualdeko jende ugari aritu da lanean.



Beleixe irratia berria Sakanan.
• AMAIA MUNDIÑANO

A STELEHEN EGURDIAN HASI zen emititzen Beleixe irratia, Sakanako euskarazko irratia. Ziorditik Irurtzuna, egunero bi orduz, bertako eta inguruko berriak eta beste hainbat gai ukitzen ditu Beleixe irratia, eta saioetan parte hartzeko aukera eskaintzen digu. Dena dela, dialeko 107.0a ez da isilik egonen eguerdiko 12:00ak arte, ez eta 14:00etatik aurrera ere, Euskarerria Irratiarekin konektaturik egonen baita Beleixe irratia. Aitziber Etxaiz eta Alfredo Alvaro ariko dira esatari lanetan. Urte hasieran egin zituzten irratiko langileak aukeratzeko probak, eta bi gazteok aukeratu zituzten esatari lanetarako.

Beleixe irratiko estudioa Etxarri-Aranazko Kultur Etxean paratu dute. Esan bezala, hasiera batean bi orduko emisioa izanen du irratia, eta gai ugari jorratuko dituzte: eguraldia, euskal izendegia, hainbat gai interesgarri buruzko elkarrizketak, informazioa, mahai-inguruak, lehiaketa, agenda eta abar eta abar.

Sakanako hizkerek ere beren tartetxoa izanen dute Beleixe irratian. Hain zuzen ere, Sakanerria izeneko atalean, eskualdeko herrietako berriak hedatuko dituzte egunero horretarako propio sortutako berriemaile sarearen bidez, eta herri bakoitzeko berriemaileak bere herriko euskaraz azalduko dituzte berriak.

Horretaz gain, Nafarroa Garaiko irratiekin konexioak egingen ditu egunero Beleixe irratia: Karrape, Xorroxin, Irati, Esan-Erran eta Aralar irratiek beren tartetxoa izanen dute astean behin.

→ Amaia Mundiñano



herri aldizkariak

Eduene Elizondo

Birziklaia eta Beleixe Irratia

SAKANAKO Mankomunitateko Zaborren Batzordeko lehendakari Santos Carballo da **Gualxe** aldizkariako azken zenbakiko protagonistetako bat. Amaia Amilibia kazetaria mintzatu da Carballoekin, eta ondokoak dira elkarrizketan jasotako hitzetako batzuk: «Hasiera-hasieratik Europako Batasunaren arautegi guztia betetzen duen zabortege bakarrenetako bat dugu Sakanakoa. Zer esan nahi du honen? Guztiz iragazkaitza dela, lixibatuen kontrol zehatzerako modurik aurreratu netakoak ditugula eta, gainera, aurreikuspenen arabera legeak arautzen di-

tuen berreskurapen indizeak baino altuagoak izango ditugula. Sortzen dugun zaborraren %10a besterik ez dugu lurperatuko; gainerakoa birtziklatzea lortuko dugu, beraz».

Sakanako aldizkariako azken zenbakiak jasotzen dituen beste gaien artean, Beleixe Irratiari buruzko da nagusietako bat. Astelehenean zen emititzen hastekoa, Aitziber Etxaiz kazetari altsasuarraren gidaritzapean. «Hiru urteko haurdinaldi baten ondoren, Sakanako euskarazko irratia jaiotzeaz dago. Bere gurasoek, Bierrik elkarteak bazkideek, bozketa baten

ondoren Beleixe izena jartzea erabaki dute. Beleixe Irratiko estudioa Etxarri-Aranazko Kultur Etxean egonen da, beheko solairuan. Eta zuen etxetako edo kotxetako irratietan bilatu nahi izanez gero, dialaren bukaera aldera joan behar duzue; izan ere, 107.0an emitituko da.»

Hasiera batean bi orduko emisioa edukiko du irratia honek. Eguerdian izanen da emanaldia, 12:00etatik 14:00ak arte. Bi orduko saio horrek gai ugari jorratuko ditu: eguraldia, euskal izendegia, sexua, kultura, informatiboak edota elkarrizketak.

Aingeru Irigarai: alde askotako gizona

Euskaltzaindiak ekainaren 24an omenduko du Etxarri-Aranatzen, eta Eusko Jaurlaritzak Bidegileak Sailean jasoko du euskaltzale nafarra

Aingeru Irigarai Irigarai nafarrak (1899-1983) euskalgintzan zeresan handia eman zuen. Euskal Herriaren aldeko maitasunak bultzaturik, hainbat gai jorratu zituen zortzi hamarkadatan. Horren lekuko dira hainbat erakundetan egindako lanak: Iruñeko Euskeraren Adiskideak Elkartean, Euskaltzaindian, Nafarroako Diputazioan Euskararen aldeko Sailean eta Eusko Ikaskuntzan, hain zuzen. Gerra aurreko eta ondorengo euskaltzaleen lokarri, euskal munduan eragile eta giltzarri eta zenbait arlotan aitzindari izan zen. Oraindik ere hark idatzitakoa ikasbide eta jakinbide dira. Euskaltzaindiak omenduko du ekainaren 24an, eta Eusko Jaurlaritzak Bidegileak Sailean haren bizitza eta ekarpenak argitaratuko ditu uda ondotik.

AINGERU IRIGARAI IRIGARAIREN MENDEURRE-na dela eta, Euskaltzaindiak zein Eusko Jaurlaritzako Bidegileak Sailak gogora ekarri nahi izan dute haren lana. Kike Diez de Ultzurrun kazetari iruindarrak haren inguruko bizitza eta lana atondu ditu uda ondotik Bidegileak Sailean argitaratuko den liburuxkan. Ezagutu zutenek Aingeru alde askotako gizona zela diote. 1899an sortu zen, Beran Alzate auzoan. Aita sendakina izaki, berak ere gero behar bera hartuko zuen. Gurasoak auriztarrek ziren, aitarengandik hartu zuen euskararen aldeko maitasuna. Fermin Irigarai Goizueta Aingeruren aita sendakin ospetsua izateaz gain, izen handiko euskaltzalea eta idazlea ere izan zen; Larreko izengoitia baliatu zuen bere idazkietan. Nolako trunkoa, halako ezpala: Aingeru Irigarai aitaren lekuko hartzen jakin zuen. 1909tik aurrera Lekarozko ikastetxean ikasi zuen, sei urtez. Baztanen hasi eta mamitu zitzaion euskal kontzientzia. Aitak etxean sortutako giroa ez ezik, ikastetxean zeuden batzuen gehitu behar zaio, aita Eusebio Etxalarkoarena, kasu. Lekarozko ikasketak bukatutik, Zaragozara joan zen medikuntza ikastera. Han pare bat urte egon ondoren, beste lau ikasturte Bartzelonan egin zituen.

Euskalgintzan ez ezik, medikuntzan ere trebatuko zen, eta doktore mailako ikasketak eginen zituen Basurtun. Ondoren, Parisera joanen zen espezialitate batzuk egitera, eta ondotik Alemaniako Friburgo hirira. Ber-

Jose Mari
Satrustegi:

«Nortasun handia
zuen, aitarengatik
zetorkion
euskaltzaletasuna.
Egiten zuenak
arriskua zekarren,
baina bere egoera
baliatu zuen
euskararen alde
lan egiteko».

tan, medikuntzako hainbat adarretan trebatzeaz gain, hizkuntzak ere landuko zituen, ingelesaz eta frantsesaz landara, alemaneraz ikasiko zuen poliki.

1924an Iruñera itzultzean lanean hasi zen Udalarren menpe zegoen Sorospen Etxean. Kontsultorio pribatua ere zabalduko zuen hiru urte beranduago, eta aita-semeak batera aritu ziren lanean Iruñeko Orreaga hiribideko kontsultorioan.

1927an Aingeruk Parisera jo zuen espezializazio ikasketak bukatzeko, eta bueltan, artean 30 urte bete gabea, medikuntza lana beste esparru batera ere eraman zuen: sindikalismora, hain zuzen. ELAko kide egin zen. Alderdi abertzalearen ekintzetan parte hartzen hasi zen eta, are gehiago, Irlandara ere joan zen.

Euskal kulturaren alde lanean

Aingeru lanean hastearekin batera, euskararen aldeko ekinari eta idazteari ekin zion. 30eko hamarkadan beste belaunaldi batekin hasi zen zeregin horretan: Blas Fagoagoa edo Paz de Zigandarekin. Beraz, Aingeru bi belaunaldiren arteko zubi izan zen, aitzinetik lanean ari ziren Larreko, Manezaundi, Jose Agerre, Damaso Intza eta besteekin ere bat egin zuelako. Denak Iruñeko Euskararen Adiskideak Elkartean batu ziren. Bestalde, urte haietako euskaltzale ospetsuenak ezagutu zituen: Arturo Kanpion, Azkue edo Julio Urkijo. Gainera, etxean zuen giroak eta Nafarroako Lapurdi eta Nafarroa Beherearekin zuen loturak sentiberatasun handia eragin zion mugaz harandiko euskaldunei buruz.

Eusko Ikaskuntzan eta Euskaltzaindian ere aritu zen. Eusko Ikaskuntzan 1924an sartu zen. Erakundeak ospe eta itzal handia zuen gerra baino lehen, eta 1933an batzorde iraunkorreko kide izendatu zuten, eta handik urtebetera, berriz, idazkari ordezko. Harreman handia izan zuen erakundeko kide eta laguntzaileekin, horien artean Joxe Migel Barandiaranekin.

1929an urgazle egin zuten Euskaltzaindian, beraz, Aingeru mahuka bete lan zebilen: lanbidea bera, bere zaletasunak, ikerketak, izkribuak eta familia.

Nafarroako beste euskaltzaleen gisan,

euskararen galera ikaragarriak oso kezkatzen zuen Aingeru. Ordurako, Bonaparte printzeak 1863an egindako maparen mugak tokitan zeuden. Galeraz oharturik, hizkuntzaren geografiari buruzko lehendabiziko ikerlanak egin eta agiri zaharrak biltzeari ekin zion. Lan ibilera horien emaitza izan zen euskararen egoeraz argitaratu zuen mapa, hau da, noraino iristen zen euskara 1933an, eta herri bakoitzean euskarak zuen indarra edo ahuldadea. Ikerketa Errepublikara garaiari egin bazuen ere, hoguei urte beranduago ikusi zuen argia, tartean Francoaren altxamendua gertatu baitzen. 1934an Maria Rosa Imazekin ezkondu zen, Lezoan, eta Iruñea hautatu zuten bizitzeko. Bi urte beranduago Espainiako Gerra Zibila hasi

Jardunaldak ekainean

Aingeru Irigarai Irigaraien eta Vicente Huitziren mendeurrena direla eta, heldu den ekainaren 24an eta 25ean Jardunaldiak antolatuta ditu Euskaltzaindiak. Etxarri-Aranatzko Udaletxean. Hogeita lau bi omen-
duak mintzagai izanen dira eta hurrengo egunean Gramatika eta Onomastika batzordeen bilera egingen da. Oraindik egitaraua zehazteke badago ere, Jose Mari Satrustegi euskaltzain arruazuarra mintzatuko da topaketetan Irigarai. Satrustegik lagun eta lankide izan zuen Aingeru euskararen aldeko lanean. Arruazuarrek gogogoratu duenez, «Espainiako Gerraren ondoren euskararen alde lan egitea zaila zen, eta inor baino lehenago hasi ginen Nafarroan. Aipa daitekeen lehenetakoa izan zen Aingeru Irigarai», dio. Satrustegik beste askoren artean bi lore eskaini nahi izan dizkio Irigarai. Haren irudiko, denbora zail hartan aurregia euskararen alde ateratzeko behar zen kuraia eta sasola agertu zuen euskaltzalea izan zen, batetik. Eta

zen, beldur aroaren hasiera izan zena. Gerra «ikaragarriko» zartakoa izan zen Aingerurentzat. Nafarroan erreketek eta falangistek jende asko hil zuten.

Aingeruk Sarara ihes egin zuen, baina familiagatik eta Diputazioko presioengatik itzuli egin zen. Orduan hasi ziren harentzako zinezko urte latzak. Udalak mediku kargutik bota egin zuen, arrazoi politikoak zirela medio. Euskarari dagokionez, urte gogorak izan ziren.

Lan joria

Aingeruk ezin konta ahal artikulua eta idazlan idatzi zituen. Gazterik heldu zionez, idazteari hainbat lan argitaratu zituen. Bere bi lehendabiziko lanak 1926koak dira: *Atsotitzak*,

batetik, Irigaraien nortasuna nabarmendu nahi izan zuen. «Nortasun handia zuen, aitarengatik zetorkion euskaltzaletasuna. Egiten zuenak arriskua zekarren, baina bere egoera baliatu zuen euskararen alde lan egiteko. Medikua zen eta bera zegoen lekuan lehen hitza euskaraz izaten zen beti», azpimarratu du euskaltzainak. Halaber, Apat Etxebarren izengoitia *Diario de Navarra* egunkarian idatzitakoak nabarmendu ditu. «Beharrezko erreferentzia zen, nahiz eta *Diario de Navarra* bezalako egunkari batean idazten zuten». Euskara ageri zen lekuan batzen ziren biak, baina bata medikua izanik eta bestea Luzaiden apaiz egonik, gutxitan izaten zuten aukera hori. Dena dela, izandakoak ongi aprobetxatu zituzten, eta arazoak sortzen zirenean elkartzen ziren lan egiteko: eskoletako haurrei herriz-herriz antolatutako euskara testuen sariak banatzean, *Príncipe de Viana* aldizkaria sortu zutenean eta euskal festetan, adibidez.

euskara garbia ikasteko eta *Notas al nuevo mapa del País Vasco* idatzi zuen RIEV aldizkarian. Hortik aurrera, hainbat artikulua izkribatu zituen hamaika aldizkari eta argitalpenetan: *Gure Herria*-n, *Yakintza*-n, *Eusko Folklore Urtearia*-n, *La Voz de Navarra* egunkarian. Izkribatutako lan horietan hainbat gai jorratu zituen: euskal idazleak eta haiek plazartutako lanak, literatur hizkera, euskararen ortografia, herri kantak, euskararen gaineko agiri zaharrak eta hizkuntzaren lekukotasun historikoak, usadio eta ohitura zaharrak, besteak beste.

Baina lan-jario hori isildu egin zen gerraren etorrerarekin. Hizkuntzari dagokionez, Kike Diez de Ultzurrunek dioenez, Irigarai, Arturo Kanpionen jarraitzaile izan zen Aranarekin izandako eztabaidetan: batetik, euskararen batasun bidean, eta bestetik, garbizalekeriari aurre egiterakoan. «Nafarre ez zuten maite Aranek ezarritako eredu, tradizioarekin eta herri hizkerek


deus ikustekorik ez zuelako, eta idazle klasi-
koen eta herri euskara aintzat hartuko zuen aukeraren alde jokatu zuten», dio bere lanean.

Berritik hasi

Gerra ondotik euskal mundua mutu zegoen, eta Aingeru Hondarribira aldatu zen, hango sendakin postura. 1942a zen, eta hurrengo urtean familia Donostian jarri zen bizitzen. Familian hiru heriotza gertatu ziren urte gutxiren buruan: aita, emazte Maria Rosa eta ama Felisa Irigarai Apat hil zitzaizkion. Aingeru lau seme-alabekin alargun gelditu zen.

1953an Iruñeko Udalak eta Diputazioak zera bota zituzten 37an lanetik kanporatuak izateko erabakiak. Hala ere, Iruñean lanean hasteko lanposturen bat libre gelditu behar zen, eta hori ez zen gertatu 62ra arte. Hortaz, Donostian lanean eta ondoren Iruñean, eta halaxe jarraitu zuen bi hiriburuen artean, erretiratu arte.

Bestalde, gerra ondorengo urteetan sukin garrantzitsuenetarikoa izan zen Aingeru Irigarai. Nafarroaren izenean, Eladio Espartazekin batera, Euskaltzaindiko kide izendatu zuten 1941ean, eta lumari heldu zion berriro. Euskalerriaren Adiskideen Elkarte bultinean hasi zen idazten.



Aingeru Irigarai.
● ARTXIBOKOA

Elkarte bereko Egan literatur aldizkarian ere idazten hasi zen, euskara hutsean, gainera. 50eko hamarkadan *Príncipe de Viana* erdal aldizkarian ere argitaratu zituen lanak. Nafarroako Diputazioko Principe de Viana Kultur Erakundeak eratutako Euskararen Sailean, Pedro Diez de Ultzurrun iruñesemaren gidaritzapean, lan handia egin zuten berak, Jose Mari Satrustegik eta beste hainbat kolaboratzailek. Hamaika ekitaldi antolatatu zituzten: euskal jaiek, haur azterketak edota bertsolari txapelketak. Era berean,

euskarazko aldizkari bat plazartu zuten, *Príncipe de Viana* eta Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian *Nafar hizkuntzan orria* sortu zuten. Orobat, garai hartan Diputazioak bi aldizkari atera zituen: *Fontes de Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, Satrustegiren zuzendaritzapean. Horietan ere aritu zen izkribatzen Aingeru. Eusko Ikaskuntzan, bestalde, J.M. Barandiaranekin eta Agustín Zumalaberekin, erakunde berriro eratzen aritu zen.

Txepetxek bere garaian esan bezala, Irigarai euskararen iragana aztertzen ez ezik, hizkuntzari etorkizuna ematen ere saiatu zen, eta euskararen batasunaren aferan bertan erdiko bidea proposatu zuen muturrekoak gailentzen ari zirela sumatuta. Horrela jokatu zuen hainbatean, 1983an heriotzak eraman zuen arte, Donostian.



Aingeru Irigarai (eskinean), Pierre Laffite (erdian) eta beste adiskide bat Auritzen. ● ARTXIBOKOA

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskararen apologista garestarra: Juan Perotxegi

Nahiz eta Poza, Etxabe, Larramendi, Erro edo Astarloa bezain ezaguna ez zaigukeen, euskarak izan dituen apologisten artean nafar bakanetakoa dugu «ogibidez» militarra zen Garesko Juan Perotxegi, eta ezin esan bere lana oharkabean igaro zela, bada, bi edizio ezagun izan baitzituen, Bartzelonakoa 1731n eta Iruñekoa 1760an



ENTZIKLOPEDIA NAFAR ITZE-lean Pérez Ollok Juan Perotxegi moduan ekarri bazi-
gun ere, ororen ezaguna da Perotxegi zuela deitura; are zalantzazkoagoa, ordea, jatorriaren afera izan zaigu, haatik, eta azkenerako, Larregik ekarri bezala hainbatek Ainhoakotzat jo izan digun arren tartean Harluxeteko Euskal Hiztegi Entziklopediko-aren egileek, badirudi garestarra zela haizatzeko ez dugula jada duda-muda handirik. Egun, Perotxegi, euskararen alde ondu lan apologetikoarengatik bereziki zaigu ezagun, non bere buruaren aurkezpena egiteari ez baitzion muzin egin: «Todo hombre que no pone su nombre en sus escritos parece que se hace sospechoso, no sólo él mismo, sino también sus escritos, y así, para librarme de semejante censura, digo que soy el Coronel Juan Perotxegui, Theniente provincial de Artillería y Comandante de la del Reino de Navarra...»; militarra izan zen Perotxegi, beraz, berrogeita hamaika urteko bultza luzez, eta guda-zelaian bizitakoek eraginik edo, hagitx ezaguna ez den honako beste lan hau ere eman zuen argitara Iruñean 1752an, *Reflexiones curiosas y notables sobre la ciencia y el valor para la guerra*; Juan Frantzisko Okanpo agustindarraren eta Tomas Mata domingotarraren onarpenekin ateratako 115 orrialdeko testuan munduko heroien ekintza militarren berri jaso zigun, berauk ulertzen zituen hiru baloreen arabera sailkatuta: balore suharra edo berezkoa, ohoreak eta amodioak sorturiko balore artifiziala, eta azkenik Jaungoikoaren-gandik jasotzen den berez-gaindiko balorea.

Euskararen lan apologetikoak bi edizio izan zuen. Lehen-

bizikoa Bartzelonako Joseph Teixidó baitan 1731n agertu zen Salazarko kontea zen Juan Idiakezi eskainirik, «Origen y antigüedad de la lengua bascongada y de la nobleza de Cantabria en que se hace ver que dicha lengua fue la primera que se habló en el mundo y la misma que trajo Tubal a España en el año 1800 de la creación con la particularidad de cómo y por donde se introdujo para poblar esta monarquía y así mismo se expresa como se introdujeron los agotes en el valle del Baztan y en el país de Bascos en el año 506 con otras curiosidades dignas de ser sabidas para todos que son oriundos de dicha lengua»; bigarren, berriz, zertxobait aldatuxea, Iruñeko Martinezen ondorengoan etxean 1760an ateratakoa dugu, Azantzako Migel Bonifazio fraideak onartu *Origen de la nación bascongada y de su lengua, de que han dimanado las monarquías española y Francia y la república de Venecia que existe en el presente*. Tubalista amorratua, euskararen geografia Penintsulaz haratago aisa gainditzen zuen; izaniko lanbidea zela eta, Europa gehiena sobera kurrutua zuen, eta Espainian, Frantzian, Italian, Grezian, Asiako Hiberian, Germanian, zein Norvegian aditutako toponimo ugarien esanahia euskararen bitartez azaltzen ahalegindu zen, alabaina, etimologiaren argitzaila moduan zeharo mesfidagarri agitzen da, eta hortxe dugu eskuara hitzarena diogunaren erakusgarri: «Escuara viene de ascogara, bay asco gara».



Euskaraz eskaini zizkigun bukaerako bertsoak eskas badi-
ra ere, gainontzeko beste apologistek ekarri zigutena baino oparoagoa dugu zalantzarik gabe. Lehenbiziko biak kopla erlijiosoak ditugu, *Sobre la esencia de la Santísima Trinidad* lerro dekasilabikokoa: «Jaungoikoa zarelari choilqui bat / Hiru aurquitzen zarete betan / Berdincen dularic berico bat / Dagoen guisan ene sinestetan»; eta *En elogio del Santísimo Sacramento* lerro oktosilabikokoa: «Beti-co Jaun Handia / Zu zara miragarria / Beinhare ez icustia / Zarelari chit aurgia». Hirugarrena, berriz, *Ephitafio sobre la losa de un difunto* izenburuko kopla dugu: «Aise dago emen datzana / Nor bere echea den bezala / Aiseago ceruan dagoena / Baliz bezala Jesusen itzala». Laugarrena eta azkena *Definición sobre la esencia de la noblezahamarrekoa* da: «Ohore handia da egulazqui / Aita honetarik etortzea / Baiñan urrunzen dira segurqui / Diotenec hau dela asco izaitea / Nior ez da ceruan sartuko / Ez ohore onerat helduko / Norc here bere aldetik / Ez badu arcen prestutasuna / Eta hidalguaren edertasuna / Jesus estia- ren amoriotik». Eta bertsoei akabera emateko, Perotxegik honakoa gaineratu zuen ironi- koki, betiere euskararen defentsan: «Unos dirán que no te entienden, otros que carece de la perfección del metro, y yo respondiéndolo por tí diré que tampoco entiendo de poesía, porque la sublimidad de tu esencia excede a todas las sentencias de los poetas profanos».

etorri a halean

Patziku Perurena



Zirriak erderaz

A

RANAZTIK ETORRI BERRIA zen familia auzora. Bi alaba gazte tartean: Benita eta Pepita. Auzoko mutilek laster hartu zuten usaia. Maiz ni Benaibordan, eta hango mutilekin joan nintzen jai arratsalde batez Ogaitolara. Kafe pixka bat hartu eta, kontu kontari, sutondo-ko giro goxoan, belaxe hasi ziren bromaldi berexi batzuk neska mutilen artean. Mutikoxkorra ni, bitarteko jostari: «ñ zirri, zirri ñ» esaten zidaten mutilek tarteka, soinekoen azpildurak edo eskote ertzak bilatzeko keinu gisakoak eginez, eta neskatxek irrifar konplize batekin ezezka bezala erakusten zuten balezko libido gordea: «huaye gero hemendik!».

Huraxe dut, «zirri egin» esaneri buruz, aurreneko eta atzeneko oroipen bizi bakarra, eta geroztik, mila zirri kontu aditua naizen arren, xarma berezia izandu du esanera sorgin honek. Terminologia sexuala euskal labelik ederrerenetakoa dela uste dut bere fonosemantika xuhurra, eta pena dut horren zabar zokoratu izana.

Ni hiztegi bantintz, eta euskal sen onomatopeiko pittin bat ukan, «*ademán cariñoso de inducción sexual*» parako nioke parean erdaraz. Ez baitut imajinatzen, zirri-rik, «esku keinurik» bitarteko ez lukeenik. Azkue, Mujika, Kintana, Izagurre, Etxezarreta, guziak apez edo apezkondo, konplikatu egin dira: «*empujones que se dan jóvenes de uno y otro sexo; palpar curvas femininas; meter mano; lazandú; seksu gogoz ukitu*» eta gisakoekin.

Jakina, larru jotze garbiraino ez beste zera guziak jo litezke zirritzat, baina, ez da hori kuixidada, errealtate zakarra baizik; euskaldunak maiz bortxatu baititu, esanera eder honen mugak. Bere kontestuan begiratzea aski. Hona kanta ezagun bat, broman hastede-ko:

-Galai bat etorri zait umil eta prestu
Traje baten neurria biar zidala artu
Koartuan sartu
Baiña nai zuantkan etzuan logratu

Ontan ezin eta gero gogorrian
Neurtu bear niñula luze laburrian
Oyaren quirrian
Oñalakin jo nuen kopet ezurrian

-Egin badiñat ere zirri edo mirri nere kopet hezurak pagatu din ongi
Joxepanttoni
Jornala kobratuta etxera noa ni

-Errukittu zitzaidan egin nion kura
Etxian zan botika: katza eta ura
Joxe Bentura
Ez gelago etorri nere komentura

Gipuzkoa aldetik Tolosako «Beotibar» bandak Leitzara ekarritako popurri batean ere, hagitx poliki ageri da zirri kontua:

En el barrio de Amara,
Lolitan etxian
dan tripas callos con un cuartillo errial batian
También tienen derecho meriendatzian
hacerle zirris a la criada sukalde atzian.

Goizuetan Aiarako Laxarori jasotako bertsoak dituzu, berri- z, hurrengoak:

Iru dama zijuazen kalean serio.
Guk neskatxarengana beti amorio
Zirri egin diola batek esan dio
Multa pagatu degu oi dala medio.

Amak egin baniñun seme biurria,
geroztik pagatzen det nere txarkeria.

Iruña duro multa neskaren zirria,
amabosna errial kartzela saria.

Batek egin diola besotik imurtzi,
bigarrenak masallen pixkabat igurtzi,
irugarrenak berriz ukitu ta utzi,
Orratx gure okerra zer dan erakutsi.

Hor ikusten da, tarteka urrutis-ko ere joaten zela zirri kontua, eta inoren kontsentimentuaren kontra, eskua zakarxo luzatzen zue- nak, taldean bazen eta aisago, jakina, kartzela edo isuna pagatu behar.

Lastima, orain «akoso sexuala, biolazioa» edo holako hitz zatarrik besterik ez da aditzen. Noiz leituko ote dut titularren batean: «Igartebururi zirri egiteagatik kartzelan Bermatx» edo gisakoren bat. Edo ez digu euskara usariozkoak deusta-ko balio?

Ziria

• Motxorrosolo •

Eztabaida politikoa

ASPALDI ESANA DU, LIKINIANON, ANGELUN EDOTA BARNEKALDE-ko bilkuraren batean, Euskal Herriko eztabaida politikoa maila goratu beharra dagoela. Azken bolada honetan, ez da salorik falta izan, urteetako inertzia estakuru, emaitzak epe luzean kausi- tuko ditugu, zuloen garraioarenak, nagusiki, jarraituko baitu.

Pilar Irigoien

Nafarroako urteko emakume zuzendaria

«Garrantzitsuena gauzak egiteko gogoa izatea da»

Pilar Irigoien urdiaindarrak Nafarroako urteko emakume zuzendariaren saria jaso berri du. Ez omen zuen espero saria, eta esker on hori jasotzea oso polita izan dela esaten duen arren, ez dago sariarekin erabat gustura. Bere ustez, CEINen, Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarrean, bere ardurapean lanean ari diren guztientzat izan behar baitzuen sariak.



• MIKEL SAIZ

URTEKO EMAKUME ZUZENDARIA sariak inoiz imajinatu ezin zezakeen elkarriketa pila ekarri zion urdiaindarri. Baina, oraindik ere, irribarre handi batez hartu gintuen bere lana alde batera utzita unetxo batez bada ere.

■ Espero al zenuen saria jasotzea?

Hautagaien artean nengoela esateko deitu zidatenean ezin nuen sinetsi, neure burua ez baitut inoiz emakume zuzendari bezala ikusi. Beste zazpi hautagaien izenak ikusi nituenean inolako aukerarik ez nuela pentsatu nuen, emakume haien lana nirea baino garrantzitsuagoa zela uste nuen. Nire izena entzun nuenean susto haundia hartu nuen, baina oso polita izan zen guztia.

■ Aldatu al du sari honek zure bizitza?

Ez, egin behar izan ditudan elkarriketa ugariengatik ez bada behintzat. Gainera, nire anaiek esan zuten moduan, sari ekonomikorik ez badago ez da ezer. Egia esan, oso polita izan da esker on hau jasotzea.

■ Normaltasunez hartu duzu saria orduan?

Egia esan, deseroso samarra da saria niretzat bakarrik izatea, nik garbi baitut ez nindutela urteko emakume zuzendari bezala hautatuko inguruan dudana talde guztia izan lanagatik ez balitz.

■ Enpresa ororentzat ala emakumeentzako bakarrik egin duzue lan CEINen?

Enpresa guztientzako zerbitzuak eskaintzen hasi ginen eta bezero gehienak gizonezkoak ziren, baina sei urte daramatzagu, eskubide berdintasunerako europar proiektuaren harian, emakumeekin eta unibertsitateekin gogor lanean.

Emakumeen enpresak sortu eta dibertsifikatzeko lanetan ari gara; emakumeak orain artean lan mota zehatz batzuetan bakarrik aritu dira, eta beste alorretara zabaltzeko garaia heldu da.

■ Prestakuntza arazo bat izango zen orduan?

Bai, adibidez ingeniariaritzaren karreretan, ez dago ia emakumerik, eta jorratu beharreko bide berriak aurkitu behar dira.

■ Nola ikusten duzu emakumearen egoera Nafarroako lan munduan?

Garrantzitsua izan da Europako Batasunak diskriminazio positiborako neurriak hartu izana lan kontuetan, baina oraindik prestakuntza arazo handiak daude. Benetako arazoa familietan hasten da, ustez emakumeentzat egokiagoak diren lanak gomendatzen etxeko alabei. Sakanan adibide garbia dago, hain lurralde industrialak izanik ere, Lanbide Heziketan neskak administratzaile aldetik jotzen dute eta, normala denez, langabezia handia dago emakumeen artean; hori ez zen horrela

izango ustez gizonezkoentzat diren bideetatik joko balute.

■ Eta unibertsitateekin zer nolako harremanak dituzue?

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (NUP) egin dugu lana gehienbat, baina unibertsitate pribatuarekin ere egin izan dugu zerbait. NUPen ideia berriak sortzeko kurtsoak egin ditugu, eta gero ideia horiekin enpresa berriak sortzeko beste ikastaro bat. Unibertsitate merkatuan esperientzia hartzea da gure lehen helburua, eta hasi ginenetik hainbat enpresa sortu dira bide horretatik. Unibertsitate pribatuan, berriz, lana aurkitzeko arazo handienak dituzten karreretako ikasleentzat motibazio jardunaldiak egin berri ditugu; eta hala, euren karrera berdina ikasi arren beste lanbide batzuetatik jarraitu duten pertsonak eraman ditugu bertara.

■ Ikasketei garrantzi handia eman izan zaie; gaur egun zer da garrantzitsuagoa, ikasketak edukitzea ala ekintzailea eta saiata izatea?

Garrantzitsuena gauzak egiteko gogoa izatea da. Ezagutza teorikoak izatea garrantzitsua da, baina nire lanean inolako ikasketarik ez izan arren, euren ideiak aurrera atera dituen jende ugari ezagutu dut. Nik neuk nire kolaboratzaileak aukera-

Pilar Irigoien Urdiainen jaio zen, duela 37 urte. Enpresa ikasketak egin zituen eta 1987tik 1989ra Altsasuko Udalean aritu zen lanean; azken hamar urteotan, berriz, CEIN enpresa publikoan ari da, enpresa berriak sorkuntzeko lana errazten enpresari berriei eta enpresa zaharretara berrikuntzak ekartzen batik bat. Gaur egun zuzendaritza lanpostuetan ari da lanean, eta urteko emakume zuzendariari dagokion saria jaso zuen apirilean.

Egun Altsasun bizi da eta Sakana aldean gustora sentitzen dela onartzen du. Urteko emakume zuzendari saria jasotzeari ez dio garrantzi handiegirik ematen, eta beretzat gauzarik garrantzitsuenak bere lagun Juan Kruz eta Ion Kepa eta June bere seme alabak direla esaten ez da lotsatzen.

Lan honek denbora asko kentzen omen dio, baina zorte handiko emakumea dela azpimarratu du. «Etxean nire lagunak asko laguntzen nau eta Marianek, gure umeak zaintzen dituen neskak ere bai. Hauengatik ez balitz ez nuen sari hau jaso ahal izango», dio.

tzerakoan garrantzi handiagoa ematen diot lanerako gogoari eta komunikatzeko erraztasunari, pertsona horren masterrei edota hizkuntza ezagueri baino.

■ Pentsatu al duzu inoiz zeure enpresa sortzea?

Bai, noski, normala da horrelakoak pentsatzea; nire bi anaiek elektronikako enpresa bat sortu zuten eta beraiekin lan egitea ere gustokua izango nuke, baina nire oraingo lanak asko betetzen nau, proiektu ezberdin asko aurrera irteten ikusten baitituzu.

■ Enpresariekin harremanetan jartzean izan al duzu arazorik emakumea izateagatik?

Ez dut arazo larriegirik izan, baina oraindik ere aginte postu gehienak gizonezkoen esku daude eta batzuetan matxismoa nabari daiteke.

■ Eta euskarak ba al du tokirik Nafarroako enpresetan?

Ez, unibertsitateetan eta oro har prestakuntzan tokirik ez izanik, zaila da gero enpresen harremanetan euskarak tokia izatea. CEINen euskaldun dezentz gaude, baina lan kontuak gaztelaniaz egin dira. Nekazari lurraldeetarako orientabide zerbitzua eta eskoletan egin genituen zenbait programa berezi izan ezik, gainerako guztia gaztelaniaz egin da.

→ Asier Legarda

**TXURI
TA
BELTZA**

EUSKAL-JAI
GAZTETXEAREN
5.
URTEMUGA
(ZORIONAK!)



Nafar Kronika

Pello Goñi

Zehaztasun eza

Gehiegi mintzatzen gara zehaztasunik gabe. Komunikabideen «show business»-ek harrapatuta bizi den gizarte honen ezaugarria izanen da, nonbait. Gaur egun edozein hiritarrek zernahi gaiez hitz egin dezake inolako lotsarik gabe, alimaleko astakeriak esan arren, halako batean mikrofonoa aitzinean paratu eta galdetzen hasten bazailo. Denok geure iritzia osatu behar dugu ahoz aho dabil-tzan gaien inguruan, presio media-tikoak hala eskatzen duelakoz. Uste dut Gil Bera izan zela horri buruz idatzi zuena. Javier Reverte idazlea, berriz, galderak egiten dituztenez mintzatu da berriki. Haren ustez, kazetari gehienok «analfabetoak» gara. Ez du arrazoi falta; ez, bederen, hitza horren irudizko adiera kontuan harturik: ezjakin, kultura gabe. Marraztu nahi duan paisa-jea osatzeko hirugarren elementu bat alpatzea interesatzen zait: mal-tzurkeria. Ene ustez arestian alpa-tutako hiru alderdi horiek zehazta-sun eza eta errealtatearen distorsioa dakartzate. Jende gutxi libratzen da distorsio horretatik, ez eta Reverte bera ere (ikus joan den urtean Sanferminei buruz idatziri-ko erreportaia). Azken aldi honeta-ko astakeriarik sonatuena Italiatik etorri zaigu. Hango astekari nagu-sietako batek Euskal Herriaren inguruan egindako irakurketa zinez esperpentikoa zen: Ibarretxeren kargu hartze ekitaldiko dantzariak karatekatzat hartzeraino iritsi bai-tzen. Komentariorik gabe. Horrega-tik ez gaitu gehiegi harritu behar Rojas Marcosen jokamoldeak CDN-ren aurkako betoa eman zuelarik Europako hauteskundeei begira, Alliren alderdiari eta orokorrean Nafarroari darion euskal kutsu negatiboa dela eta.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- Mendigorria: Flitter taldeak kontzertua eskainiko du bihar plazan, 23:30etan.
- Alloz: Skolariak taldeak kontzertua eskainiko du bihar.
- Iruñea: Zagreb-eko Orkestra Filarmonikoak kontzertua emango du datorren astearte-an, 19:45etan, Gaiarre Antzo-kian.
- Zizur Nagusia: Oskorri eta The Pub Ibiltariaren kontzer-tua izanen da datorren aste-azkenean, 19:30etan, fron-toian. Ostegunean, berriz, Burlatako kiroldegian joko du ordu berean.

ERAKUSKETAK

- Iruñea: Iruñazar euskaltegian (Errekoletas 16) Koke Orbai-zen pinturak eta Jokin Etxar-teren eskulturak ikus daitez-ke astelehena arte.
- Iruñea: Maiatzaren 28 arte ikusgai izanen dira Pintzel Galerian Iñigo Matxainen la-nak.
- Iruñea: Lacava tabernan Al-dunateren margoak ikus dai-tezke hilaren 23a bitartean.
- Iruñea: Maisonnave hotelean hamahiru argazkilarik nafa-rren prentsa argazkiak ikus daitezke hilaren 18a arte. Besteak beste, Mikel Saiz edo Joxe Lacalleren lanak bistatu daitezke.

ANTZERKIA

- Castejon: T'Ombliigo taldeak *La fiesta del abuelo mudo* lana oholzaratuko du gaur, 17:30etan, Kultur Etxean.
- Etxarri-Aranatz: T'Ombliigo taldeak *Aiton mutuaren festa* lana taularatuko du Kultur Etxean datorren asteazkene-an 12:00etan. Ostegunean, berriz, Irurtzunen antzertuko du 10:00etan, eta 12:00etan Kultur Etxean.
- Erriberri: T'Ombliigo teatro tal-

deak *La fiesta del abuelo mu-do* lana antzertuko du dato-rran asteartean, 18:30etan, Udaletxean.

BESTELAKOAK

- Iruñea: Urtxintza Aisialdiko Hezitzaileen Eskolak inguru-giroa aisialdian lantzeko ikastaroa antolatu du. Ikas-

taroa maiatzaren 14an hasi-ko da eta hilaren 29a arte iraunen du elkarteak duen egoitzan: Mercaderes 18, 1 Esk. Informazio gehiago 948-211478 telefonoan.

- Iruñea: Herri Urratsera joate-ko autobusak antolatu ditu Donianitz Donibaneke eus-kara taldeak. Autobusa 8:30etan aterako da. Bidai

txartelak 1.000 pezeta balio du. Irrintzi Euskaltegian edo Toki Eder tabernan salgai.

- Iruñea: Maddalen Iriartek hi-tzaldia eskainiko du gaur NUPeko Giza Zientzien erai-kineko 1.140 gelan. *Kazetari-tza prestakuntza ETBn duan esperientziatik* izenburupe-an bere beharraz ariko da 17:00etan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Por iso se papai vivise non lle gustaría que mamai ca-sase con outro.

Horregatik, aita biziko balitz, ama beste batekin ezkontzerik ez litzaioke gustatuko